

# BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 2556

*EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 13koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita, Legutio (Araba) udalerrian Castillo parke eoliko-rako administrazio-baimena eskatzeko lehia-prozedura.*

Espediente zk.: 01-GEY-2022-00001.

### AURREKARIAK

1.– 2022ko urtarrilaren 25ean, Plauri Energy SL-k aurretiko administrazio-baimena eskatu zuen Castillo parke eolikorako, Legutio udal mugartean (Araba).

2.– Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, jendaurrean jarri zen dagokion eskaera, lehian beste eskaera batzuk aurkezteko aukera emateko. Iragarkia 2022ko martxoaren 2ko Arabako Lurralde Aldizkari Ofizialean eta otsailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

3.– Arauz aurreikusitako epean, 2022ko martxoaren 30ean, Iberdrola Generación, SAU merkataritza-enpresak lehiarako baimen-eskaera aurkeztu zuen.

4.– 2022ko apirilaren 27an, Iberdrola Generación, SAU enpresak lehia-izapideari uko egin ziola adierazi zuen.

5.– 2022ko apirilaren 29an, Plauri Energy, SL-k lehiaren prozesua ebazteko ezarritako dokumentazioa aurkeztu zuen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Elektrizitatearen Sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 21. artikulua, Energia elektrikoaren instalazioak garraiatu, banatu, merkaturatu, hornitu eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 115. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak ezartzen dute energia elektrikoa ekoizteko parke eolikoak eraiki ahal izateko alde aurretiko administrazio-baimena behar dela.

2.– Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariak, 115/2002 Dekretu horrek ematen dizkion eskumenak baliatuz, honako hau

### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iberdrola Generación, SAU enpresak aurkeztutako lehia-izapideari uko egitea onartzea, eta eskaeran atzera egin duela jotzea.

Bigarrena.– Plauri Energy, SL Legutioko (Araba) Castillo parke eolikorako sustatzaile hautatzea.

2022ko ekainaren 9a, osteguna

Hirugarrena.– Plauri Energy SL enpresak, sei hileko epean, 115/2002 Dekretuak 7. artikuluan ezartzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, aldez aurretiko administrazio-baimena izapidetzeko.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka Gora Jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria sailburuordearen aurrean, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkiadearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 13a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.